



Altsasukoa mustutzearekin batera Sakanako garbigune sarea zabalduko da / 5

Ezkurdiak aitortu du burua Binakako finalean zentratuta izatea zaila egiten ari zaiola / 12-13

Asteazkenean Vuelta Sakanara helduko da; etapa etxetik jarraitzeko deia egin dute / 2-3

'Zaldi Urdina'-k Euskal Herriak pairatu duen drogaren inguruko hausnarketa proposatzen du / 23

MODA SAKANAN

Udazken-negurako tendentziak
Urriak 23 Guaixe astekarian
publi@guaixe.eus edo 661 52 32 45



Maidar Betelu Ganboa ZIORDIA

Lieja-Bastogne-Lieja Klasikoan lehiatzen bueltan zetoan orain arteko denboraldi bitxia izan du hizpide Gorka Izagirre Insaustik (Astana). Madrilgo aireportuan zegoen, Bilbora, lehenik, eta Zior-diko etxera, bigarrenik, joateko bidean. Pandemia dela eta, azken unean aldaketarik ez badago, asteartean Irunen hasiko den Espainiako Vueltan ariko da Gorka Izagirre. Vueltarekin zer gertatuko den azken unera arte ez dagoela jakiterik aitortu du.

Otsaila bukaeran Emirerri Batuetako UAE Tourrean lehiatzen ari ziren COVID-19ak proba bertan behera utzi zuenean. Ondoren koronabirusa gurera iritsi zen, konfinamendua etorri zen, eta ondoren errepideetara buelta. Eta tartea izan duzu abuztuan Grande Trittico Lombardo proba irabazteko eta Tourrean talde lan bikaina egiteko. Lasterketei dagokienez, denboraldia berandu hasi da baina nahiko intentsitate handikoa izan da. Tourretik bueltan, atse-den pixka bat hartu eta ondoren Ardeetan izan ginen, bi klasiko-tan. Eta orain, gauzak ongi, Espainiako Vuelta dugu aurrez aurre. Ea zer gertatzen den.

Txirrindularitzaren aurtengo helburua Frantziako Tourra nola edo ahala aurrera ateratzea zen, babesleei begira, txirrindularitzari begira eta taldeen bizirauteari begira. Helburua lortu da eta, gainera, Tour ikusgarria izan da. Miguel Angel Lopez liderraren alde lan handia egin zenuen eta tarte batean sailkapen orokorreko 3. postuan egon zen Lopez, baina Pogacarrek irabazitako erlojupeko ikusgarrian podiuma galdu zenuten. Tourraren zer nolako balorazioa egiten duzu?

Besteek ni baloratu beharko nindukete, baina pertsonalki ongi sentitu nintzen Tourrean. Astanan ez genuen gaizki egin. Sailkapen orokorrean atarian izan ginen, baina azkenean ez zen lortu. Alde horretatik pena pixka batekin geratu ginen, baina bi etapa irabazi genituen eta gustura. Lan ona egin genuen.

Tourreko azkenaurreko etapen Pogacarrek (UAE Emirates) guztia nola irauli zuen eta Roglic (Jumbo) maillot horia nola irabazi zion

"San Migelek etapa hautsiko duela, hortaz ziur nago"

GORKA IZAGIRRE ASTANAKO TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Aldaketarik ezean, asteartean ekingo dio denboraldiko azken itzuli handiari, Vueltari. Asteazkenean etxe ondotik pasako da

ikusgarria izan zen. Erlojupekoan lortu zuena sorpresaz bizi izan zenuten edo tropelean arerioak nola dauden ongi asko dakizue eta ez zizuen harritu?

Gauza batzuk beharbada ez digute harritzen, baina Pogacarrenak bai. Tropelean hurrengo egunean Parisko etapan beste hitzik ez zen, Pogacarrek nola eman zion buelta eta Tourra nola irabazi zuen. Asko hitz egin da Roglic-ek ez zuela erlojupeko ona egin baina esan beharra dago erlojupeko ona izan zela berea; txarra ez zen izan. Gauza da Pogacarrek hegan egin zuela eta buelta ematea lortu zuela.

Tourrean jende asko ikusi genuen portu eta herri eta toki jakin batzuetan eta gutxiago beste batzuetan. Orokorrean ikusle gutxiago izan dira?

Dudarik gabe, askoz ere jende gutxiago egon da. Frantziar Departamentutako sailkatuta zuten birusaren gaia, arrisku mailaren araberak. Orduan, gertatzen zitzaigun leku batera iritsi eta inor ez egotea, eta hurrengo egunean etapa beste leku batean atera, departamentuz aldatu eta hor jende gainezka egotea. Kontraste handiak izan dira, baina modu orokor batean



Gorka Izagirre Astanako txirrindularia. ASTANA

hartuta, Tourrean askoz ere ikusle gutxiago egon dira.

BURBUILAZ

Tourra aurrera ateratzeko ezinbestekoa izan da txirrindulariak eta taldeak burbuila batean sartuta egotea, COVID-19 birusa zuenera ez heltzeko. Noiz sartu zineten burbuila?

Lehenengo kontzentrazioa Sierra Nevada egin genuen; uztaileko 20 egun egon ginen bertan, talde osoa erabat isolatuta. Gero etxera etorri ginen. Hor etortzen dira arazoak; bakoitzak bere bizitza pertsonala izaten du eta zaila izaten da isolamendu hori mantentzea, baina gu horretan saiatzen gara, besterik gabe.

Gogorra izan da?

Bai, eta izaten ari da. Azkenean bizimodu aldaketa bat egitea da; txipa aldatu behar da, gauzak lasai hartu eta onartu orain gauza batzuk ezin direla egin. Horrekin bizitzen ikasi behar da momentu hauetan behintzat.

Tourretik etxera, gero Ardeetara, atzera ere etxera, gero Vueltara... birusa dela eta beti kontuz, seinala guztiak zaintzen...

Jakina. Eta ez dira itzuli handiak bakarrik. Lasterketa bakoitzeko burbuila bat egiten dugu. Arazoa, askotan, etxera bideko bidaietan egoten da ere. Aireportuetan jende askoren inguruan zabitza, eta leku hauetan kontu handiarekin ibili behar da.

Giroa ez zen ongi hasi Astanaren dako. Hasierako erlojupekoan Miguel Angel Lopez lurrera erori eta Giroa utzi behar izan zuen, baita Vlasovek ere, gaixorik. Jakob Fuglsang liderrari Giroa zaildu egin zaiola.

Bai. Giorako taldea egitea ere kosta egin zen, positibo kasu batzuek egon zirelako taldean. Horrek ere Giroa zaildu zuen, eta gero Miguel Angelen eta Vlasoven bajek egoera makurrarazi zuen. Fuglsangen helburua Giroa da, bera ongi dago, eta ikusiko da egunetik egunera nola doan.

VUELTA, ZALANTZAK

Vueltara zein talde eramango du Astanak?

Oraindik taldea ez dago guztiz itxita-eldarizketa urriaren 5ean



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



egina dago-. Gauzak ongi ni bertan izango naiz, Omar Fraile ere bai, uste dut Alex Aranburu ere bertan egotekoa dela eta baita Luis Leon Sanchez ere, baina hortik aurrerakoak ez dakizkit. **Taldeko lider garrantzitsuenek Giroaren hautua egin zutenez, Vueltan zure aukera izan dezakezu.**

Ikusiko da, ea nola heltzen garen eta ea Vuelta bera egiten den. Gauzak aireandaude, Espainiar Estatuan COVID-19 birusa nola dagoen eta gauzak nola ari diren jartzen kontuan hartuta. Uste dut azken momentura arte ez dugula ezer jakingo.

Kolokan ikusten duzu Vuelta? Imaginatzen duzu antolakuntzako norbaitek esatea 'ez da Vueltarik egongo, ezin da Vuelta ater'.

Bai, zergatik ez? Ikusten dut eta gauzak jartzen ari diren bezala, ez lida harrituko. Eta ulertuko nuke.

Portuetan despiditzen diren etapetan ezingo da ikuslerik egon eta halako beste hainbat neurri etor daitezke.

Jakina, etorriko diren neurri guztiak oraindik ez dakizkigu. Estatu osoan egoera okertzen ari da. Ni ez naiz erabakia hartuko duena, Unipublic da Vueltako antolatzailea, eta bere gainetik Tourreko antolakuntza eta UCI bera daude, eta horien guztien gainetik Espainiako Gobernua egonen da. **Urriaren 20an, asteartea, hasiko da Espainiako Vuelta, Irunen hasi eta Arraten despidituko den etaparekin. Gauzak ongi, noiz bilduko zarete Astanakoak Vuelta prestatzeko?**

Pandemiagatik Vuelta atzeratu zutenean, hasieran Holandan jokatzeak ziren lau etapak kendu zituzten. Horregatik 18 egunera gutxitu da Vuelta eta asteartearekin hasiko da. Hasiara asteartean izaki larunbata aldera elkartuko gara, normalean hiruzpalau egun lehenago elkartzen baikara.

Espainiako Vueltako lehen etapa Irunen hasi eta Arraten despidituko da, eta bigarrena, asteazkenean jokatuko dena, Iruñean hasi, Lizarraldera jo eta Urbasatik Sakanara sartuko da, Sakana zeharkatu eta Uharte Arakilgo pistatik Aralarko pista igotzeko, ondoren Lekunberrin despiditzeko. Etapa bat etxetik pasatzea berezia izango da.

"GAUZAK JARTZEN ARI DIREN BEZALA, EZ LIDAKE HARRITUKO VUELTA EZ JOKATZEA"

Bai, noski. Azkenean urte osoan mundu osotik zehar gabiltza, toki guztietako errepideetatik barna, eta bizpahiru egunetan etxe ondok pasako gara. Ezagutzen dituzun errepideak eta mendateak pasatzea beti da oso atsegina. Eta zalegoa, zer esanik ez. Hemen zaleen harrera oso beroa izaten da, denek ezagutzen zaituzte eta oso gustagarria izaten da etxean lasterka egitea, nahiz eta aurtengure mendateetan ikusleak egotea debekatu.

Aralarko pista edo portua zer iruditzen zaizu? Gogorra al da?

Oso gogorra. Aralar oso gogorra da, bai noski.

Pirinioen eta halakoen ondoan akasoez zaigu horrenbesterako iruditzen...

Bai, oso gogorra da, eta agian lasterketa egunean erabakigarria izango da; bigarren eguna da, eta bi lasterketa izan daitezke: bata etapa ehiztariendako eta atzetik sailkapenarendako, baina San Migelek dena hautsiko duela, hortaz ziur nago.

Tropelean zoaztenean, lasai, jaio-territik pasatzerakoan eta halakoe-tan ondokoari esaten al diozue: 'hara, hau nire herria da'.

Ez, ez dugu halako tarterik (kar, kar...), komentatzen duguna da gero eta tarte gutxiago izaten dugula gure artean hitz egiteko. Bukaeran, taldekideen artean edo hotelean gaudenean, lasaia, egiten ditugu halako komentarioak, esaterako: 'zenbat jende zegoen puntu honetan' eta 'ze giro zegoen tontorrean'... Halako gauzak bai, baina etapa bukaeran. **Vueltan ere orain arteko segurtasun neurriak izango dituzue. Berriro ere PCR-ak eta ohiko odol analisiak, goitik behera kontrolatuta egongo zarete.**

Bai, eta hori ez da soilik Tourrean izan, aritu garen lasterketa guztietan izan da. Lasterketa guztietara horrela goaz: bi PCR egiten ditugu aurretik. Eta odol analisisena betidanik dago hor.

Nola sentitzen zara Vuelta hasteko bezperatan? Sasoitsu?

Ongi. Ardeetako Klasikoetan ere ongi ibili naiz eta ikusiko dugu. Hala eta guztiz ere, Vuelta oso gogorra da ibilbidez, eta ikusiko da. Itzuli handietan egunetik egunera joan behar da eta ikusiko dugu zer moduz ibiltzen garen. Niri berez Vuelta bezalakoa itzuli bat ibilbide aldetik ez datorkit ongi, bereziki azkeneko urteetan Vueltak hartu duen formatu horri begira: aldapa piko horiek ez dira onak nire ezaugarrietarako.

Faborito nagusiez ere ez da asko hitz egiten. Bezperara arte taldeek ez dute esango nor eramango duten, baina iazko Vueltako txapeldun Roglic (Jumbo), Froome (Ineos), Carapaz (Ineos), Dumoulin (Jumbo), Enric Mas (Movistar Team), Pinot (FDJ), Valverde (Movistar Team) dira entzuten diren izenak.

Hala da, azken unera arte ez dira taldeak konfirmatuko; aurtengure oso arraroa izan behar da guztia.

9 GARAIPEN ERREPIDEAN

2008tik zara profesionala. NGC Medical-OTC Industria Porte, Contentpolis AMPO, Euskaltel-Euskadi, Movistar Team, Bahrain Merida eta Astana izan dira zure taldeak. **Profesionaletan 8 garaipen dituzu: Ordiziako Klasikoa hirutan (2010 eta 2012 eta 2014); Luxemburgoko Tourreko etapa bat 2010ean; 2017an Giroko 8. etapa eta Amorebietako Klasikoa; 2019an Espainiako Txapelketa; eta aurtengure, 2020an Grande Trittico Lombardo irabazi duzu eta horretaz gain Espainiako Txapelketetan erlojupekoan hirugarrena izan zara eta errepideko txapelketan txapeldunordea. Oso kontentu egoteko modukoa, ez?**

Bai, egia esan. Baina 2019ko Provenzak Tourraren garaipena ahaztu zaizu.

Hara, hortaz 9 garaipen...

Bai, eta Espainiako Vueltako taldekako bi erlojupeko ere. Asko ez dira eta... (kar, kar...).

Vuelta jokatu eta gero errepideko denboraldia despidituko da. Iaz oso ondo ibili zinen ziklo-krosean, Espainiako Txapelketan hirugarrena izan zinen eta Garai eta Ormaiztegiko lasterketak irabazi zenituen. Aurtengure lokatzetan murgilduko zara?

Ez, aurtengure ez naiz ibiliko. Oso berandu bukatuko dugu aurtengure denboraldia, azaroaren erdian, eta dena soka batekin etorriko da segituan. Ez fisikoki bakarrik, buru aldetik ere hori guztia hustu beharrean zaude. Eta berehala hasiko da hurrengo denboraldia; kontzentrazioekin abenduan hasiko gara taldeak, eta dena pilatuko da. Atsedean hartzeko tarte gutxi izanen dugu.

Zurumurrak ere zuen bizitzako parte izaten dira. Oscar Guerrero altsasuarrak zuzentzen duen Israel Start-Up taldeak Chris Froome fitxatu du eta Froome laguntzeko taldean Izagurre anaiak egotea nahi omen zuten.

Ahaztuta dago kontu hori. Nik beti esan dut Astanan jarraituko dudala. Gauzak ongi badoaz, datorren urtean ere hemen jarraituko dut.



2014ean Vuelta Aralartik pasa zen ere. ARTXIBOA

Segurtasun neurri zorrotzeko Vuelta badator

Azken aldaketarik ezean, asteazkenean, urriak 21, Espainiako Vuelta Sakanatik pasako da

COVID-19aren urteko Espainiako Vuelta asteartean abiatuko da Irunen, gauzak ongi. Pandemiaren egoera kezkarriaren aurrean, Vueltako antolakuntzak, Unipublic-ek "Vuelta etxean jarraitzeko" deia egin die zaletuei. "Telebista izango da aurtengure Vueltan animatzeko modurik onena" azaldu du Unipubliceko zuzendari Javier Guillenek. Guillen asteartean Gasteizen egon zen, urriaren 27an Gasteiztik abiatuko den etapa aurkezteko, eta Vueltak segurtasun neurri "oso zorrotzak" izango dituela nabarmendu zuen: txirrindulari taldeak burbuilan sartuta egongo dira, eta Vueltan lan egingo dutenei ere PCR probak eskatuko zaizkie. Halaber, portu gainetan despiditzen diren etapak publikorik gabekoak izanen dira, eta egoerak eskatzen badu, murrizketa gehiago egingen dituztela iragarri zuen.

Ikuslerik gabe

Asteazkenean Sakanatik pasako den etapen Urbanen eta Aralarko portuan ikusleak egoten utziko duten ala ez, antolakuntzak, Unipublic-ek, ez du ezer garbi esan, baina Guaixe Nafarroako Kirol Institutuarekin jarri da harremanetan eta, esan dutenez, "oraindik ez dakigu zehatz-mehatz nola antolatuko duten dena, baina proba jenderik gabe izango da". Beraz, ez dirudi Aralarren edo Urbanen txirrindulariak animatzeko moduan egongo garenik.

Vueltako Sakanako etapa (asteazkena, urriak 21)

Espainiako Vuelta asteartean abiatuko da Irunen, eta Arrate gainan despidituko da (185 km). Etapa

indartsuarekin hasiko da Vuelta, eta hurrengo egunekoak, asteazkeneak, Sakanako ez da gutxiagorako. Iruñean hasiko da asteazkeneko etapa, 13:49an. Txirrindulariek Ororbiako norabidea hartuko dute. Girgillanoko Gaina (3. maila) pasata, Lizarrara helduko dira 15:14ak aldera, eta Zudairerantz joko dute Urbanen portua (3. maila) igotzeko. Portua 15:50ak aldera gaindituko dute. Segidan, Olaztira jaitsi (16:14) eta txirrindulariek Sakana zeharkatuko dute. Arbizon tarteak helmuga izanen dute jokoan (16:33) eta Uharte Arakil parean (16:43) 1. mailako San Migel Portua igotzeari ekingo diote. Portua igo eta Guardetxerantz joko dute txirrindulariek, jaitsierari ekiteko. Baraiabar (17:14) pasatu eta Lekunberriko helmugara 17:20an iritsiko dira, gutxi gorabehera, 151,6 km osatuta.

2014ko oroitzapenak

2014an Espainiako Vueltako etapa bat Aralarko San Migel gainan despidituko zen eta sekulako jendetza pilatu zen ibilbide guztian barna eta zer esanik ez, Aralarren. Txirrindularitzaren festa izan zen Aralarko: mendia milaka ikusle gainezka egon zen eta Fabio Aru (Astana) izan zen etapako irabazle handia. Bestalde, Rural Kutxa-Seguros RGA taldeak zaleen festa antolatu zuen Uharte Arakilen, eta sekulako giroa egon zen. Baina polemikak ere tokia izan zuen, etapa bukatuta, antolakuntzak ez baitzuen garbiketa momentuan bertan egin. Aralar zikin-zikin geratu zen eta, jakina, kritika asko egon ziren. Berandu ibili zen antolakuntza guztia txukun uzten.



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

Kristalezko sabaia

Marilyn Lodene 1978an aipatu omen zuen “kristalezko sabaia” terminoa lehenengo aldiz, emakumeok zenbait lanpostu edo aginte postutara iristeko dugun muga ikusezina adierazteko. Kristalezko sabaia zaila da nabaritzeko, gardena da, ikusgaitza, alegia. Gainera, zenbaitetan sabaia ikutzera iristen diren emakumeak besterik ohartzen dira izan badela. Idatzi gabeko zein arau edo keinuren bidez definitu dezakegu muga edo hesi hori, gainerakook hortxe dagoela ohar gaitezen eta hautsi beharrekoa dela pentsa dezagun?

Zuen bizitzan, zuen lanean horrelako zerbaite gertatu baldin bazaizue, kristalezko sabaia igartzeko gai izanen zarete, segur aski. Alegia, gora egin nahi izan duzuenean edo gora egiteko aukera izan duzuenean, baina ezinezkoa izan denean, goiko kristal horren kontra kanka jo duzuelako eta bertan gelditu behar izan duzuelako, ikaragarritzko kolpea hartuta eta lehen baino ahulago.

Lan arloan kristalezko sabaia gainditzan saiatu diren emakumeei hesi horretatik gora egitea ezinezkoa egin zaie sarritan euren (lan) inguruan, gertuko aldetik, babes

ZENBAITETAN SABAIA IKUTZERA IRISTEN DIREN EMAKUMEAK BESTERIK OHARTZEN DIRA IZAN BADELA

nahikorik ez dutelako lortu, nire iruditua. Baina, askotan zaila da azaltzea beste norbaiti zer dagoen babes falta horren atzean eta zergatik babes falta hori. Arrazoi ugari egon daitezke horretarako, niri, behintzat, hauek bururatzen zaizkit: emakume horien prestakuntza edo trebezia kolokan jarri delako, agerikoena; zenbaitetan, inguruko lankideei men egiten ez dien emakumea delako; bere iritzia ingurukoendako politikoki zuzena ez delako (sabaia gainditzan lagundu behar diotenendako, alegia); apika, iritzi propioa duelako; lankide batzuen hutsuneak oso agerian geratzeko arriskua dagoelako... Jakina, arrazoi horiek guztiak ez dira argi eta garbi esaten, ezkutuan daude eta emakume horren ahalmenak inguruko artean gutxiesteko giroa sortzen dute eta babes falta eragiten dute. Beharbada, arau ikusezin horiek begien bistan jartzen saiatu beharko ginateke, ikusgaiak izan daitezen.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXE** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

OBJEKTIBOTIK

@memetxorroak



DUELA 25 URTE...



Sakanako Autobia (A-10) zabaldu zuten

Bakaiku eta Urdiain arteko autobioiako 4 km-ak irailaren 6tik erabilgarri bazeuden ere, hilaren 17ko 12:35ean zabaldu zen Lakuntza eta Altsasu arteko tartea. Sakanako Autobiak (A-10) 12.980 milioi pezetako aurrekontua izan zuen (Kontu Ganberak gerora esanen zuen % 33ko gainkostua izan zuela). Lau zatitan egin ziren lanak: Etxarren-Irañeta (1993ko otsailean irekia), Irañeta-Lakuntza (1993ko garagartzaroen 24an zabaldua), Lakuntza-Etxarri eta Etxarri Arantz-Altsasu. Hala ere, Altsasuko lotura gunea egitea eta Ziordia eta Olaberria arteko N-1 errepidearen bikoizketa falta ziren.

ZUZENKETA

Txerri haztegiei buruzko joan den asteko erreportajearen abeltzain baten izena oker eman genuen. Jon Ganboa da izen zuzena. Bide batez, Lizarragako irakurle batek gaztigatu duenez, txerri arrari ordots deitzen zaio eta txerri emeari txerri ardi.



guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Maria Luisa Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZKIDEAK



Sakanako garbigune sarea handituko da

Heldu den ostegunean zabalduko da Altsasuko Otain dagoen garbigune berria. Sakandarrek bertan etxeko hondakin bereziak kudeatzeko aukera izanen dute, hau da, bilketa kamioiek eraman ezin dituztenak

ALTSASU
Sakanako Mankomunitateak hondakinen kudeaketarako Garbigune Sarea du. Orain arte Arbizuko garbigune finkoa eta herriz herri dabilen garbigune mugikorrak osatu dute sarea. Baina ostegunetik aurrera Altsasuko garbigunea gehituko zaie. Altsasun mustuko den garbiguneak hondakin bereziak hartuko ditu. Hondakin horiek dira ohiko bilketa kamioi batek har ez ditzakeenak, bai arriskutsuak direlako, bai kamioiaren mekanismoa hautsi dezaketelako, edota legez debekatuta dagoelako.

Bestela esanda, askotan Altsasuko edukiontzien ondoan agertzen diren hondakin horiek hartuko ditu garbigune berriak. Horrela haien kudeaketa hobe egingen du ibarreko erakundeak. Garbiguneak inolaz ere ez ditu industria hondakinak jasoko. "Horiek kudeatzaila pribatu baten bidez kudeatu beharreko hondakinak dira".



Sakanako Mankomunitateak garbigune sarea zabalduko du. MANK

Asmo bikoitza
Altsasuko garbigunea zabaltearekin Mank-eko hondakin bilketa zerbitzuko arduradunek bi helburu dituzte. Hondakinen gaikako bilketan sakondu eta "Sakanak Nafarroan gehien

birziklatzen duen mankomunitatea izaten jarraitzea". Horrekin batera, "azken urteotan Pilotajauku inguruan sortu den legez kanpoko hondakin isurketa guneari konponbidea eman nahi dio".

Zer eraman daiteke

- Inausketa: adaxkak, makilak eta landare hesietako ebakiak.
- Obra txikietako arrastoak: adreiluak, harriak, porlana eta zeramika. 2m³ gehienez.
- Egurra: paleak, hautsitako altzariak eta markak edo zoruak.
- Tresna elektriko txikiak: mugikorrak, kableak, jostailu elektrikoak, monitorea, erlojuak.
- Sukaldeko olioak. Ez eraman beirazko ontzietan.
- Pilak: alkalinoak, botoi pilak eta berunik gabeko bateriak.
- Aire filtroak.
- Bateriak: Beruna daukaten bateriak.
- Ehunak: arropa, oinetakoak, poltsak, gortinak, alfonbrak, mantak eta maindireak.
- Fitosanitarioak.
- Argiteria: LED, kontsumo baxuko bonbillak eta fluoerazenteak.
- Erregaiak: Gasolioa eta gasolina.
- Izotz kontrakoa. Gehienez 5 litrotako ontzietan eraman.
- Laborategi produktuak: termometroetako merkurioa eta soda kaustikoa.
- Margoa eta berniza: berniza, mota guztietako margoak eta tinteak.
- Erradiografiak. Paperezko sobrerik gabe.
- Moto olioak. Gehienez 5 litrotako ontzietan eraman.
- Titoak: lapikoak, zartaginak, elektrikoak ez diren jostailuak eta tresnak, liburuak, koadroak, apaingarriak eta maletak.
- Txatarra: objektu eta pieza metalikoak.
- Tamaina handikoak: garbigailuak, sofak, armairuak, hozkailuak, apalategiak, oheak, koltxoak eta bestelako altzariak.
- Monitorea: PC pantailak eta telebista zaharrak.
- Tonerrak: tinta kartutxoak eta inprimatzeko tonerrak.

Sexu eta genero aniztasuna ziklo batean aztergai

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak eta Kattalingunek, Nafarroako Gobernu LGTBI+ zerbitzuak, *Askotariko Sakana*. Aniztasuna ereiten zikloa antolatu dute. Hilaren 22aren eta azaroaren 8aren artean Irurtzun, Lakuntza, Etxarri Aranatz eta Olatzagutia bisitatuko ditu. Guztietan Kattalingune aurkeztuko da eta ikusentzunezkoak eta antzerkia ikusteko aukera izanen da ere. Bietan sexu eta genero aniztasunaren inguruko informazioaz solasaldiak ere aurreikusi dira. Naizen elkartearen lekukotza jasoko da eta Hormak, mendialdeko LGTBI+ elkarteak ere aurkeztuko da.

**SAKANAKO ENPRESA BATEK
PERTSONA BAT EDO
AUTONOMO BAT KONTRATATU
NAHI DU SUKALDEKO
ETA KOMUNEKO ALTZARIEN
MUNTAIA EGITEKO**

Curriculum: ag14@asesoriagoikoetxea.es

COVID-ak sortutako murrizketek dirauten bitartean ordutegi eta zerbitzu bereziak gure jatetxean

Asteburuan dastatu gure menu berezia, horretarako BI BAZKARI TXANDA: 13:30etik 15:00etara edo 15:00etatik aurrera

Ostiral eta larunbatetan afariak jatetxean bertan edo etxera eramateko. Igandetan eramateko bakarrik 20:00etatik 21:30etara Gozatu gure hanburgesak, pitzak, bokatak...

Astez eguneko menua

ESKAERAK ETA ERRESERBAK: +34 635 093 140

Gure asmoa, zu zaintzea

Txilen kalea duen Altsasuko alkate ohiaz

Jose Manuel Goikoetxea Askorberen, "Fardelen", lagun talde batek duela pare bat urte "ekintzaile handi, berritzaile errepikaezin eta pertsona on baten figura aldarrikatzeko" egindako ahaleginaren emaitza da argitaratu berri den liburua

ALTSASU

Jon Gurutz Gomez Goikoleak, Luis Miguel Macias Pereda eta Luis Javier Telleria Orriolsek elkarrekin liburu bat idatzi dute: *Una calle en Ancud. Jose Manuel Goikoetxea Askorbe (in memoriam)*. 200 orri irakurrita jaso daiteke altsasuarraren berri. Hiruko idazleak Noticias de Alava egunkariak aste honetan argitaratutako iritzi artikuluan adierazi duenez, "liburua Goikoetxeari Euskadik eta, berezi-ki, bere lehen sektoreak zor dion omenaldia izan nahi du. Baina profesional handi baten aldarrikapena ere bada".

Goikoetxearena lan kolektibo baten barnean kokatu dute, egungo Euskadiren oinarriak jarri zituen XX. mendeko 80ko hamarkadako politikariena. Eta egindakoa liburuaren bidez eskertu nahi izan diote. "Bere humanismoaren, jatorriaren eta konpromiso sozial negoziatzaren errepasoa da. Eta bere obraren eta merezi duen aitopenen aldarrikapena da".

Gomezek, Maciasen eta Telleriak Goikoetxea "gizarte bokazio sakona eta bizi izan zen gizartearekiko eta kide sentitzen zen herrialdearekiko irismen luze-ko konpromisoa zituen gizon" gisa definitu dute. "Beraren kemenaz, ezagutzaz eta gogo biziaz gozatu zuten lekuetan hobera egin zuen bere bultzadaz". Idazleek altsasuarrari aitortu diote Euskadin industriaren aurren galbidera zihoan "lehen sektorearen eraldaketarako eta aurrerabiderako palanka" izan zela. Azaldu dutenez, Goikoetxeak Eusko Jaurlaritzako sailburu gisa bultzatu zituen politiken ondorioen artean zerrendatu dituzte: kalitatezko nekazaritzako elikagaien ekoizpenak, landa ingurunea duintzea, bertan lan bizitza eta bizitza pertsonala garatzen dutenendako zerbitzu duinak sustatzea.



Jose Manuel Goikoetxea Askorbe, Alliren eta Ardantzaren artean.. UN CALLE EN ANCUD

"BERE OBRAREN ETA MEREZI DUEN AITORPENAREN ALDARRIKAPENA DA LIBURUA"

Kalearena

Bere bizitzako azken urteetan Txilen denbora asko eman zuen Goikoetxeak. Hirukote idazleak azaldu duenez, Ancud Txileko Los Lagos eskualdean dagoen Chiloe estatuko hiriburua da. Eta bere kaleetako batek altsasuarraren izen-abizenak ditu (liburuaren azalean agertzen da seinalea). "Horrela omendu dute hark egindako interesik gabeko lana, konpromiso sakona eta Chiloearen ongizatea eta garapen iraunkorra bultzatzeko egin zuen ekarpen handia. Bere lehen helburua behartsuenen bizitza duintzea eta errenta eta lan baldintzak hobetzea izan zen".

Gaztigatu dutenez, "gaur egun, estatu hartako landa turismoaren eskaintza erreferentzia bat da munduan. Kalitate eta esperientzia paregabeak eskaintzen ditu, eta jarduera ekonomikoa-

ren dibertsifikazio prozesu bat sortu du, zeinaren errendimendu osoa auzotarrek jasotzen baitute. Horregatik, Ancudeko kale batek ekintzaile bat gogoratzen du, estatuko biztanle guztien bizi baldintzak hobetzeko hainbeste aktibatze gai izan zena".

Altsasu

Javier Ollo Martinez alkateak azaldu digunez, "Gomezek, Maciasen eta Telleriak Goikoetxea oso ongi ezagutu zuten bere bizitzaren hainbat pasarteetan". Aurreratu duenez, protagonistaren gazteria garaietatik heriotzara arteko kontakizunak jaso dituzte liburuan. Goikoetxearen familiak liburuaren aurkezpen publikoa egin nahi izan zuen irailean. Baina COVID-19 gaitzak eragindako pandemiak, asmo hori, momentuz, bertan behera utzarazi die.

Ollok azaldu duenez, liburu Altsasuko udal liburutegian har daiteke maileguan irakurtzeko. "Ale bakarra dago, baina eskaera ikusita bigarren bat ere eramanen dute. Momentuz, hori da liburu eskuratzeko modu bakarra".



Elkarriketako bat egiten ari zireneko. ARALAR MENDI ELKARTEA

Kultur ondare ez-materiala zabaltzeko laguntza

Artzain eguneko protagonistetako batzuk elkarriketatu dituzte eta bideoa ontzen ari da Aralar Mendi elkarte

UHARTE ARAKIL

Aralar Mendi elkarteak kultur ondare ukiezineko proiektua egiteko 4.025 euroko dirulaguntza jaso du. Nafarroako Gobernuak, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bidez, herri kultura tradizionala zabaltzeko *Sustraiak-Raíces 2020* programaren barne da dirulaguntza hori. Elkarte uhartearretik azaldu dutenez, "udaberri akabera ez zegoen batere garbi Artzain Eguna ospatuko ote zen. Eta egunari ekarpena egiteko hainbat aukera aztertu genituen". Haietako bat dirulaguntzarekin

lotu eta despiditzear dute: Artzain Eguneko protagonistetako batzuei ospakizunaren egunean bertan, agorrilaren 30en, egindako elkarriketa sorta batekin osatutako bideoa. "Azken ikutuak ematen ari gara eta laster argitaratuko dugu".

Laguntzen helburua da Nafarroako elkarte ehuna indartzen laguntzea eta Nafarroako kultur ondare ukiezina baloratzaren jarduerak garatzea bultzatzea. Irabazi asmorik gabeko elkarteak edo fundazioak dira laguntzak jaso dituztenak.



WWW.ARTZAI-GAZTA.EUS

Ustarroz Idiazabalen omendua

Euskal Herriko 37. Artzai Gazta Txapelketa La Leze gaztandegiak irabazi zuen, eta Arruazuko Albi bosgaren izan zen. Jose Mari Ustarroz uhartearra egon zen eta antolatzaileen partetik omenaldia jaso zuen: "bere bizitza osoa baserri munduarekin eta horren balioekin, artzainekin, ardi latzarekin eta Idiazabal gaztarekin konprometitu egoteagatik".



Altsasuko suhiltzaileen parkekoak Aralarren, Belokin, min hartutako mendizalearen ondoan. ARTXIBOA

Suhiltzaileen egoera "kaotikoa" salatu dute

Altsasuko parkean gutxienez 3 suhiltzaile egon behar dute, garileko 5 egunetan suhiltzaile gutxiago egon ziren, 6 kideekin konponduko zena. Agorrilean, berriz, gutxienekoaren azpitik 8 egunetan egon ziren, eta 8 kideen presentziarekin beteko litzateke

SAKANA

Urteetan izan den "utzikeriaren eta planifikazio faltaren" ondorioz, Nafarroako suhiltzaileen egoera "kaotikoa" dela azaldu dute suhiltzaileen eta babes zibileko langileen sindikatuek. Hortaz, gutxieneko-ira iristeko garilean 68 eta agorrilean 105 suhiltzaile gehiago behar zirela salatu dute CCOO, ELA eta UGT sindikatuek. Egoerari aurre egiteko administrazioak aparteko orduak egitera derrigortzen ditu langileak, sindikatuen iritziz, zerbitzuan eta langileen seguritatean eragiten duen "konponbide faltsua". Altsasun udan hamalau suhiltzaile behar zirela azaldu dute.

Suhiltzaileen eta babes zibileko langileen batzordeak sektore mahai bat egitea eskatu zuen langileriaren falta eta zerbitzuko zenbait arazo konpontzeko. Besteak beste, ibilgailuen zaharkitzea, parkeetako instalazio zaharkituak,

suhiltzaileen lanaren hierarkia, anbulantzia darabiltzaten suhiltzaileen lege segurtasun falta, oposizioak egin bitarteko tartean zer egin landu nahi zuten. "Baina mahai honetan ez ziren arazo hauek landu, are gehiago, ez ziren lehentasunezko konponbideak bilatu". Ibilgailuen eta parkeen instalazioen zaharberritzea, esaterako, aurrerago lantzeko gelditu direla salatu dute sindikatuek. "Pertsonalaren faltari aurre egiteko proposatu duen konponbide bakarria aparteko orduak egiteko prest dauden suhiltzaileen zerrendak osatzea izan da".

Herritarren babeserako zerbitzu bat denez, sindikatuek ez

EGOERA HONEK SUHILTZAILEAK APARTEKO ORDUAK EGITERA DERRIGORTZEN DITU

dute nahi suhiltzaileen zerbitzua aparteko orduetan oinarritutako zerbitzu bat izatea. "Kalitatezko lana" sustatzea ezinbestekoa dela esan dute. Beraz, zuzendaritza orokorrari "benetako" prozesu bat martxan jartzea eskatzen diote. "Benetako eta egonkortutako konponbidea eskaintzen duena".

Urte hasieran oposizioak egin eta 38 suhiltzaile berri izendatu zituzten, baina "zuzendaritzak bakarrik dakizkien arrazoiengatik apartatuta dituzte". Bitartean, sindikatuek salatu dutenez, suhiltzaileen parkeak gutxieneko langileria osatu gabe lan egiten dute eta, gainera, zenbait suhiltzaile "plaza ez duten" parkeetara joan behar dute "eta bertako instalazioak, tresnak, protokoloak eta kideak ezagutu behar dituzte, lan dinamika apurtuz". Egoera "kaotikoa" suhiltzaileak aparteko orduak egitera derrigortzen ditu, sindikatuek "onartu ezin duten" egoera.

Bizikidetza diagnostikoa, martxan jartzear da

Bizikidetza Planaren lehenengo pauso bezala bizikidetza diagnostikoa egingen du Altsasuko Udalak

ALTSASU

Herriko gizarte harremanak nolakoak diren ulertzeko eta alderdi positiboak identifikatzeko Altsasuko Udalak bizikidetza diagnostikoa egingen du. Nafarroako Gobernuaren 8.000 euroko dirulaguntza jasoko du, Bake, Bizikidetza eta Giza Eskubideen zuzendari nagusiaren baitan dagoen dirulaguntza. Laguntza "memoriaren, biktimen, giza eskubideen, bakerako hezkuntzaren eta bizikidetzaren arloko" jarduerak egiteko baliatu behar du udalak.

Udalak Arete Activa aholkularitza enpresaren laguntza izanen du diagnostia egiteko. Enpresak herritarrei elkarrizketak egin eta "beste ekintza" batzuk proposatuko dizkie eta horren bidez bizikidetzaren egoerari buruz dauden ikuspegiak jasoko ditu, "ahalik eta aniztasun handiena hartzen saiatu". Udalak proiektuaren aurrerapenen berri emanen du. Gainera, herritarrek ekarpenak egiteko aukera izanen dute. Horretarako "partaidetza bideen" berri emanen dute.

berria ekitaldiak Artedrama, Axut eta Dejabu konpainiek aurkeztzen dute:

Urriak 24 | **Altsasu**
Larunbata • 19:30 | Iortia kulturunea

Sarrerak:

- Aurretik **12 €** (BERRIAlagunek **10 €**)
- Egunean, **14 €** (BERRIAlagunek **12 €** - bartelarekin)

Sarrerak salgai:

- BERRIAn: Berria.eus/berrialaguna/denda helbidean edo **943-30 43 45** telefonora deituz.
- Iortia kulturunean eta www.iortiakultura.com helbidean.

Ekitaldian osasun neurri guztiak bermatuko dira. #KulturaSeguruaDa

Antolatzaileak: **berria** **BADOK** **Mank** Laguntzaileak: Nafarroako Gobernua, Gobierno de Navarra, Altsasuko Udala

"Gehiena Altsasun grabatzen ari gara"

EIDER GABILONDO 'ALTSASU' TELESAILKO EKOIZPEN ZUZENDARIA

'Altsasu' telesailko ekoizpen zuzendari Eider Gabilondok orain arteko lanarekin pozik daudela adierazi du

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Baleuko ekoiztetxeko lantaldeak lau aste egin ditu herrian. ETBren eta TV3 kateen enkarguz Altsasu-ko auziari buruzko lau ataleko telesaila grabatzen ari dira. Fikziozko lana 2016ko lastailaren 15ean hasi eta zigorra ekarri zuen epaiarekin bukatzen da. Egituran auzibidean pertsonen sentimendu eta erlazioak gurtzatzen dira. Gidoia Harkaitz Canok, Mikel Alvarezek, Andoni de Carlosek eta Asier Urbietak (zuzendaria) idatzi dute.

Aktore taldea 30 antzezlek baino gehiagok osatzen dute. Auzipetuen papera jokatu dute Erik Probanzak, Nikola Zalduegik, Aia Krusek, Asier Oruesagastik, Julen Jimenezek, Xabier Elizalde, Ander Azurmendik eta Jon Olivaresek. Itziar Atienza, bes-

talde, gazteen abokatua izanen da pantailan. Jose Ramon Soroiz, Miren Gojenola eta Jose Ramon Argoitia aktoreak ere ikusiko ditugu telesailan. Guardia zibilaren pertsonaiak Cristian Merchaneke eta Jorge Monjek jokatu dituzte, eta haietako baten bikotekidearena egingen du Yasima Drisik.

Zer moduz joan da orain arte grabazioa?

Oso ongi doa. Orain arte grabatu dugunarekin oso pozik gaude eta itxura ederra dauka telesailak. Egia da euriarekin zailtasunak izan ditugula. Ez baita erraza bost asteko grabaketa zeruari begira antolatzea. Baina ohituta gaude. Badakigu hemen hori gertatu daitekeela. Mila aldaketa egin ditugu dena ateratzeko, baina aurrera goaz.

Zenbat egun daramazue Altsasun?

Hau laugarren astea da. Egun batzuetan Oiartzunen eta Iruñean egon gara. Hurrengo astean Bergaran grabatuko dugu hirugarren atala. Baina gehiena Altsasun grabatzen ari gara.

Lau atal dira, zenbat grabatu dituzue?

Momentuz ez dugu atal oso bat bera bukatu. Guk ez dugu kronologikoki grabatzen. Sekuentziak nahasten dira. Zeren faktore asko kontuan hartu behar dira: lokalizazioak, aktoreak... Beraz, egun berean lau ataletako sekuentziak graba ditzakegu.

Altsasuarren harrera nolako izan da?

Altsasun, hasieratik, ate guztiak ireki dizkigute. Asko-asko lagundu digu herriak. Gogoratzen naiz, hasieran, gure asmoa zela Donostian eta inguruan grabatzea



'Altsasu' telesailaren fotograma bat. EITB



Altsasuko kaleetan ikusi dira grabazioak.

gehiena. Baina ikusita zer nolako erantzuna izan genuen herriaren aldetik, planteamendua aldatu eta kasik guztia Altsasun grabatzen ari gara. Talde osoa Altsasun bizitzen dago. Hau da, 50 pertsona daude hor bost astez. Talde teknikoa eta aktore asko aterpean daude.

Telesailagatik PPK ETBri "zigortutako kriminalak txuritzea" leporatu dio.

Politikoki ez dut ezer esatekorik. Nire ardura telesailaren produkzioan dago. Eta esparru honetan ez dut informaziorik. Gure lana telesail hau ateratzea da. Eta, egia esan, inguruan gertatzen denari ezin diogu denborarik eman.

Herrian non grabatu duzue?

Herri osoan: aterpean, Lezea eta Haritza tabernetan, kale askotan, hainbat plazatan, Dantzalekun, hilerrian... Bai, Altsasu oso ondo ezagutzen ari gara. Gainera, Oiartzunen, Iruñean eta Segoviako kartzela zaharrean grabatu dugu ere.

ETBk noiz emanen du?

Laugarren astea bukatzen eta azkena faltako litzateke. Paraleloan muntatzea egiten ari da. Grabaketa bukatu eta gero muntatzea despiditu behar dugu, audio nahasketak, irudiaren kolorea egin, musika... Oraindik lan handia falta da. Lan asko dago atean eta jende asko. Korrika ibili behar gara zeren abenduaren 7an mustuko da ETB1n.

- BEROKUNTZA - NEKAZARITZA -
- AUTOMOZIOA -

Lakuntza

Etxera eramateko gasoleoa

Alberto Iriarte

948 576 016 - 609 421 680

Kaixo
Kafetegia- Jantetxea

RESTAURANTE - KAIKO - BAR-CAFETERIA

GARCIA XIMENEZ 20-22
948.46.91.24 ALTSASU
www.restaurantekaixo.com



Inauteriak ere eszenaratu dituzte. EITB



Kartzelako eszena bat. EITB

Telesailarekin "zigortutako kriminalak txuritzen"

PPko senatariak egin du salaketa eta, aldi berean, ETB Nafarroan hartzeari uzteko eskaera berretsi du

ALTSASU

Amelia Salanuevak, Nafarroako Partido Popularreko senatariak, "EITB erakunde publikoak Altsasuko zigortuak telesail batean biktima gisa aurkezteko duen asmoa" salatu du. Eta gogorazi du "biktima gisa aurkeztea aurreikusten diren gazteek bi guardia zibili eta haien bikote-kideei eraso zietela". Nafarroako PPko senatariak azpimarratu du telesail horren enkargua bat datorrela EITBk Altsasuko auziari buruz izan duen ildo editorialarekin. "Urteak darमतate kriminal horiek zuritzen, terrorismoagatik kondenatuak izan direnak zuritzen, *Barrura begiratzeko leihoak* bezalako dokumentalen bidez, eta presoengururuan, edota Estatuko erakundeei eraso eginez", argudiatu du. Salanuevak gaineratu duenez, "nafarrek ez dute mezezi propaganda nazionalistari eutsi behar izatea".

Salanuevak gaztigatu duenez, ETB Nafarroan "PSN abertzale-tasunarekin bat eginda dagoelako" emititzen da. Seinalea jasotzeko akordioa aldiro berritu behar izaten dute Euskadiko eta Nafarroako gobernuek. PPkoak hitzarmena bertan behera uztearen alde egin du.



Jonan eta Julen kalean nahi dituztela aldarrikatzen. ARTXIBOA

Auziaren itzala gero eta luzeagoa egiten ari da

Hura eragindako gertaerak izan zirela lau urte bete ziren atzo. Auzibideak aurrera jarraitzen du

ALTSASU

Aurtengo efemeridea joan den urtekoa baino bareagoa izan den da. Izan ere, joan den urteko lastailaren 9an jakinarazi zuen Espainiako Auzitegi gorenak Altsasuko auziari buruzko epaia: urte bat eta sei hilabete eta bederatzi urte eta erdi arteko espetxe zigorrak. Epaia irmoa zen, bete beharrekoa. Herriarregan, atzera ere, bidegabekeria eta neurrigabetasun sentipenak islatu ziren. Etorriko ziren mobilizazioak prestatzeko garaia zen ere.

Laugarren urteurrenean ez dago halako girorik. Eta "gatz" pixka bat jarri diotenak ETBrako telesaila grabatzen ari direnak dira. Bitartean udaletxe parean dagoen kontagailuan zenbakia gero eta handiagoa da. Adurrek, Jokinek eta Oihanek gaur 1.433 egun egiten dituzte zigorpean, haietatik 1.326 preso. 3. gradu

daude eta irailaren 8az geroztik besoko telematikoa dute eta herrian bizi dira.

Bitan atxilotuak izan diren Aratzek, Iñakik, Jonanek eta Julenek 899 egun egin dituzte zigorpean. Aurreneko biak abenduaren 20an atera ziren kartzelatik 588 egun preso egon ondoren. 3. graduaren daude, herrian eta kontrol telematikoa dute. Zigorrik txikiena jaso zuen Ainarak ez zuen kartzelara sartu behar izan eta aske da dagoeneko.

Jonan eta Julen dira gaur egun preso dauden auzipetu bakarrak. Dagoeneko biek bina baimen izan dituzte espetxetik kanpo egun batzuk emateko. 3. gradura pasa eta egunak kalean eta gauak kartzelan pasatzeko eskaera egin dute eta horren zain daude. Bitartean, COVIDagatik, aurrez aurreko bisitarik ez eta lokutorioan 2 bisitari ez dituzte hartzen.

Txalaparta

Taberna

948 467 070

Zumalakarregi plaza

ALTSASU

Zure edari banatzailea!

Hijos de Goikoetxea

Tel. 948 467 317 - 948 562 341 • Geltoki auzoa 11 • ALTSASU

PORTUKO

okidengia

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)

Etxarri Aranatz: 948 460 988 | Urdiain: 948 563 763

Irabazi eguzkitako betaurrekoak!

egunean
behin?



Sakanaoptika
optometriak - audiorreforma - kontaktologia

Egunean Behin jokoan Sakana taldeko hilabeteko irabazleak Sakana optikako eguzkitako betaurrekoak irabaziko ditu.

Sakana taldera sartzeko kodea: 2B2160

Urriaren 26ko asteko lehenengoak irabaziko du.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 16

ALTSASU Gazte agenda: Ping pong txapelketa.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak, Euskal Herrira.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske.
20:00etan, udaletxearen parean.

OLAZTI Irakurketa klubaren solasaldia: Harkaitz Canoren *La voz del Faquir* liburua.
21:00etan, liburutegian.

LARUNBATA 17

ALTSASU Emozioen kudeaketa tailerra. 16 urtetik 30 urtera.
10:00etatik 14:00etara, Intxostiapuntan.

ALTSASU Gazte agenda: Sukaldaritza tailerra.
18:00etan, Intxostiapuntan.

IGANDEA 18

ALTSASU Egitarreta-Agiri-Madotz

ibilbidea egingen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.
Antolatzailea: Gema.
08:00etan, egoitzatik.

ALTSASU Lezera 30 km-tako ibilbidea egingen du Barranka errepide txirrindula taldeak.
08:30ean, Zumalakarregi plazatik.

ALTSASU Pistacatro konpainiaren eta Haize Berriak bandaren *Orquesta de Malabares* ikuskizuna.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 19

ALTSASU Pentsio duinen alde. Sakanako Jubilatuen eta Pentsiodunen Koordinakundearen kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxearen parean.

ASTEAZKENA 21

ALTSASU Osasun etxea zaindu! Oinarritzko osasun arretarako baliabide gehiago eskatzen ditu Nafarroako Osasun Plataformak.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEA

En busca de Summerland gaurkotasunezko filma
Ostirala 16: 22:00

En busca de Summerland gaurkotasunezko filma
Igandea 18: 19:30

Un diván en Túnez zineforum filma
Igandea 18: 19:40

Black beach gaurkotasunezko filma
Osteguna 22: 19:00

¡Va por vosotras! zineforum filma
Osteguna 22: 19:00

Nafarroako Osasun Plataforma.
11:00etan, osasun etxearen parean.

OSTEGUNA 22

IRURTZUN Kattalingunea bulegoa. Harremanetarako: Goretti Etxepare Alberro sexologoa: 948 229 149 eta 678 266 865 telefonoetan eta iparmendebaldea@kattalingune.org epostan.
11:00etatik 19:00etara, kultur etxean.

OLAZTI Askotariko Sakana. Aniztasuna ereiten zikloa. Kattalingune LGTB+ Zerbitzuaren aurkezpena: *Homoamak* eta *Tras la piel* film laburren proiektzioa eta sexu eta genero aniztasunaren inguruko solasaldia.
19:00etan, kultur etxean.



IRURTZUN Dorisen marrazkiak. Irailean eta urrian.
Pikuxar euskal txokoan.



ALTSASU Altsasuko IX Arte Azoka. Urriaren 9tik 31ra arte. Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.



OLAZTI Lur azpian. Desobiratze goiztiarrak Nafarroan erakusketa. Urriaren 1etik 16ra. Liburutegian.

beleixe 107.3 FM
ZUZENEAN 10:00-12:00
ERREPIKAPENAK 14:00ETAN
ONLINE ENTZUTEKO
GUAIXE.EUS



DE KOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: **948 468 360** · Telefono mugikorra: **690 641 860**



IRAGARKI SAILKATUAK

LEHIAKETA

Gazteentzako zientzia eta tekniko bideo lehiaketa Elhuyarrek antolatuta: 12-18 urteko gazteei zuzendua eta bakarka edo taldeka (4 gehienez) parte hartu daiteke. Saria Futuroscope parkerako 2 eguneko bidaia. Parte hartzeko baldintzak eta informazioa www.zientzia-azoka.elhuyar.eus weborrian. Izena emateko epea urriaren 30ean amaitzen da.

Egile berriendako euskarazko XXX. Literatur Lehiaketa Iruñean: Lanak aurkezteko epea urriaren 16an amaituko da poesia eta narrazio modalitateetan. Aurten lanak online www.irunakultura.eus helbidean, edo paperean Udaleko Erregistro Orokorrean (Kale gunea, 2) aurkezteko daitezke.

OHARRAK

Intxostiapuntako ordutegiak: Gaztegunea astelehenetik ostegunera, igande eta jaiegunetan 17:00etatik - 21:00etara, ostiral eta larunbatean 17:00etatik 22:00etara, ekintza berezietan 17:00etatik 01:00etara. Informazio gunea astelehenetik ostiralerara 07:30tik 15:00etara eta asteazkenetan 07:30tik - 12:00etara eta 17:00etatik - 20:00etara. Tfnoak 948 564 785 / 608 617 778, intxostiapunta@altsasu.net.

net+gazteria@altsasu.net.

Altsasuko Txantxari ludoteka: Izena ematea Ludotekan bertan. Ludoteka urriaren 13an zabalduko da. Ezeztapenak urriaren 30 arte. Ordutegiak: 2012-2018 (astelehen, asteazken eta ostiralean 15:30-16:45 eta astearte eta ostegunetan 18:30-20:00), 2016-2013 (astelehenetik ostiralerara 17:00-18:15) eta 2020-2017 (astelehena, asteazken eta ostiralean 18:30-20:00). Aurten 0-3 urteko saioak doakoak izango dira, baina, familiak izena eman behar dute talde egonkorak sortzeko helbururarekin (laguntzen duen heldua beti pertsona bera izango da). Informazio gehiago 948 467 471 / ludoteka@altsasu.net.

ETB-ko "Biba zuek" saio berrirako euskara ikasten ari diren pertsonen bila dabilta: Donostiako Miramongo estudiantetara joan eta zuzenean elkarrizketatuak izateko prest egongo diren pertsonak. Euskararekin lotura berezia dutenak, bizimodu desberdina edo historia bitxiak dituzten pertsonen bila dabilta. Profil hau betetzen duen norbait ezagutzen baduzu 943 011 682 (haintza) - 655 283 427 (haintza) edo biba-zuek@etb.eus helbidera idatzi. Aldez aurretik, mila esker.

Xaloe Telebista Euskal City saio berrirako jende bila gabilta: Saio bakoitzaren helburua euskara sustatzea da eta Nafarroan dauden egoera desberdinak plazaratzea da. Elkarrizketazailer bat eta bi gonbidatu, zeinak herri desberdinetakoak izanik beren herriko euskararen egoerari buruz, COVID-19aren eragina buruz eta hementik aurrerako etorkizunari buruz hitz egingo duten. Norbait prest egongo balitz, gurekin harremanetan jarri xaloemagazina@gmail.com helbidera idatziz, 948 59 05 57 / 689 093 181 / 644 834 740 tfnoetara deituz. Animatu eta parte hartu!

Arropa bilketa: Etxarri Aranazko boluntario taldeak arropa Elizkorta kaleko bere egoiztan jasotzen du astelehenetan, 17:00etatik 18:30era. Egoera onean dagoen arropa eraman behar da, garbi dagoena. Derrigorrezkoa da maskararekin sartzea.

Ayuda Contenedores erakundearen material bilketa berri martxan: Altsasuko Ayuda Contenedores Gobernuz Kanpoko Erakundea material bilketa egiten hasi da berriz. Denetarik jasotzen dute: arropa, zapatak, eskola materiala, jostailuak, bizikletak, higiene produktuak, haur oihalak,

sendaketak egiteko gazak eta bendak, mantak, ordenagailuak eta beste. Asteazkenetan, azoka egunean, goizeko 10:00etatik 13:00etara egiten dute material bilketa, Altsasuko Frontoiko Zeharbidearen 14. zenbakiko udalaren bajearen. Poltsak itxita eraman behar dira, eta astebete itxita mantentzen dituzte, berrogeialdian. Egun bereziki Afrikara ari dira bidaltzen hemen jasotakoa, edukiontzietan.

Mentore bila Altsasun: Gazte migranteekin egonaldiak aurreratuak bizi dira Iturmendin eta Altsasun. Haiei udan akonpainamendua egiteko boluntarioak behar dira. Gizarite eta hezkuntza arloko akonpainamenduz aparte aisialdiko jarduerak egiteko da. Iturmendin astelehenetan 10:00etatik 14:00etara eta ostegunetan 11:00etatik 14:00etara. Altsasun ostiralean 11:00etatik 14:00etara. Altsasun, gainera, mentore izateko aukera dago. Sei elkartearekin harremanetan jartzeko: 948 239 739 edo 673 329 449 gestorasocial@asociacionsei.org Informazio gehiagorako: www.asociacionsei.org.

Aralarko santutegian bisita gidatuak: San Migel santutegia ezagutzeko bisita gidatua egin daiteke. Izena emateko hots egin 948 373 013 edo miguelxelsis@gmail.com.

Adingabe atzeritarrekin egoteko boluntarioak: bakarrak dauden adingabe atzeritarrek bizi dira Iturmendin eta Altsasun. Haiei udan akonpainamendua egiteko boluntarioak behar dira. Gizarite eta hezkuntza arloko akonpainamenduz aparte aisialdiko jarduerak egiteko da. Iturmendin astelehenetan 10:00etatik 14:00etara eta ostegunetan 11:00etatik 14:00etara. Altsasun ostiralean 11:00etatik 14:00etara. Altsasun, gainera, mentore izateko aukera dago. Sei elkartearekin harremanetan jartzeko: 948 239 739 edo 673 329 449 gestorasocial@asociacionsei.org Informazio gehiagorako: www.asociacionsei.org.

Gazte Karnetaren 30. urteurrena dela eta Nafarroako Gobernuak hura duten gazteei Nazioarteko Aterpekeide Txartela oparitzen ari die. Azken horrek munduko 4.000 aterpe baino gehiagotarako sarbidea ematen du. Horretaz aparte, makina bat deskontu eta gazte mugikortasun programetarako sarbidea ematen du ere. Nazioarteko Aterpekeide Txartela oparitan jaso nahi duenak www.juventudnavarra.es/eh/hasiera web gunearen bidez egin dezake eskaera. www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUSWWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



Jarri zure iragarki laburra!


948 56 42 75

iragarki@guaixe.eus


www.guaixe.eus/iragarkiak

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 16




Larunbata, 17



Igandea, 18



Astelehena, 19



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Julen Martija eta Joseba Ezkurdia pilota aukeraketan. ARTXIBOA

"Finala Julenekin jokatzeara, hori da buruan dudan bakarra"

JOSEBA EZKURDIA PILOTARIA

PILOTA Igandean Binakako Txapelketako finala jokatuko da, Justizia Epaitegi Gorenak kontrakoa erabakitzen ez badu. Julen Martijarekin jokatu nahi duela oso argi du Ezkurdiak

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Pilota profesionala kinka larrian dago. Baikoko 15 pilotari greban daude eta horrek bete betean hartu du Binakako Pilota Txapelketa. Aurreko larunbatean Agirrek eta Albisuk Ezkurdiaren eta Martijaren kontra finalerdia zuten jokatzekoa, baina Baikokoak ez ziren kantzara agertu, greban daudelako, eta partida galdutzat eman zieten. Horregatik, epaitegiatar jo dute Agirrek eta Albisuk eta ELA sindikatuak, euren greba egiteko eskubidea urratu dela salatzen eta, halaber, igandean jokatzekoa den finala ez jokatzeko kautelazko neurriak eskatzeko.

Igandean Binakako Txapelketako finala jokatuko da, edo ez.

Asteartean aurkeztu zuten errekurtoa eta hiru egun behar omen dira erabakitzen. Ea epailek zer erabakitzen duen.

Egoera arraroa, ezta?

Bai, egoera arraroa da eta egun zailak, egun txarrak, mugituak... izaten ari dira. Gertatzen ari den guztia ez da batere ona pilotarendako; ea poliki guztiak buelta ematen duen eta guztia bere onera etortzen den.

Zer sentitu zenuen larunbatean, hutsik zegoen Bizkaia pilotalekuan?

Guri esan ziguten Bilbora joan beharra genuela. Egia esan, guztia oso surrealista zen. Ez dakit nola azaldu. Inork ez genuen pentsatzen halako egoera batera iritsiko ginenik. Beste enpresan, Baikon, ez dira ulertu, ez dira gauzak ongi egiten ari eta egoera honetara iritsi gara. Pena da, larunbatean frontoian eman genuen itxura ez baita ona pilotarendako, eta horri buelta eman beharra dago.

Aspeko pilotariek elkartasuna adierazi diezue Baikoko grebalariei eta adierazi diezue zuek ez dituzuela Baikoko jaialdiak osatuko.

Beraiek greba egitera iritsi dira, ez dira momentu onak, eta guk, Aspeko pilotariek, Baikon antolatzen dituen jaialdietan parte ez hartzea erabaki genuen, ez zaigulako bidezkoa iruditzen. Azken batean, beraiei pilotariek jaialdi bat aurrera ateratzeko gai ez badira, zerbait gaizki egiten ari direnaren seinale da.

Egoera gehiago korapilatzen, Julen Martijak positiboa eman zuen koronabirusean. Badirudi urte hau madarikatua dagoela, alde guztietatik.

Bai, hala ematen du. Pasatzen ari dena gutxi ez, eta beste kolpe bat.

Kolperik handiena Julenendako izan da. Orain lasaia dago, baina ez ditu egun onak pasa. Bere lehenengo finala jokatzeko aukera, eta final hori arriskuan egotea kolpe latza da. Orain baikor dago, baina egun gogorak izan dira. Esaten da txar guztiaren ondoren zerbait ona datorrela, eta ea finala ekartzeko gai garen.

Julenek bigarren PCR proba gainditu beharko luke igandeko finalean egoteko. Okerrenean jarrita, hala ez balitz, bere orde Zabaleta aritu beharko litzateke. Jose Jabierrek berak esana du finala Martijarena dela eta Julenek jokatu beharko lukeela.

Ez dut balizko egoera horretan jarri ere egin nahi. Julenek ezin duela jokatu ez dut pentsatu ere egin nahi. Enpresak badaki zer pentsatzen duen; nik esan diet halako egoera ematen bada, finala aste bat atzeratu beharko litzatekeela finala Julenek jokatu ahal izateko. Justuena iruditzen zait. Esaten dute ezin dela. Aurreko txapela Zabaletarekin atera nuen; dagoen atzelaririk hoberenetakoa da, eta alde horretatik ez dago inolako aitazkari, baina nik uste dut Julenek partida hau jokatzeara merezi duela eta Julenek jokatu beharra duela. Finala Julenekin jokatzeara, hori da buruan dudan bakarra.

Gertatzen ari den guztiaren aurrean Binakako finala bera bigarren maila batera pasa da. Finalerako zure prestakuntzan burubelarri zabilta edo zaila egiten ari zaizu?

Zaila izaten ari da. Entrenatzen ari naiz eta entrenamendu onak egin ditut, baina gero burua finalean zentratuta izatea ezinezkoa ari da izaten. Azkeneko egun hauetan finala hor dagoela eta igandekoa egun polita izan daitekeela barneratu nahiko nuke. Hori pentsatu beharra dugu eta burubelarri kontzentratuta egon. Ez da erraza baina lortu beharra dugu, finala lehiatzea nahi badugu.

Orain bi aste, Olaizola eta Urrutikoetxearen kontra, kosta egin zitzaizuen partidaren sartzea eta eurak gailendu ziren. Esan zenuen partida horretatik gauza asko hobetzeko zenituztela eta erasokor jokatu eta zuek iniziatiba izatea, hori dela gakoa, eta hori lortzera joan behar zaretela.

Gurea oso ongi egin beharra dugu. Eibarren, Olaizolaren eta Urrutikoetxearen kontra, ez nintzen eroso sentitu. Galtzen hasi ginenean burua pixka bat joan

zitzaidan, ez nuen konfiantzarik, eta tiraka jokatu genuen, deseroso. Finalean burugorrrak izan beharra dugu. Nik jokoan sartu beharra daukat, erritmoa ezartzen dudala sentitu, horrela jokatzean mina egiten dudala nabaritu. Ea kantzara erasokor ateratzen garen eta erasokor jokatzen dugun. Nik uste dut hori dela txapela lortzeko bidea. **Nola ikusten dituzu Olaizola eta Urrutikoetxea? Badirudi Baikoko afera jokoan ez diela eragiten.**

Beraien lana oso ongi egiten ari dira. Beraien aurkako partidandu buruz ez ginen sendo egon, eta badirudi kantzatik kanpo gertatzen ari diren gauza guztiek beraiei ez diela eragiten. Dena kanpoan uzten dute, eta partidandu kontzentratzeko gai dira. Eta hori da guk lortu behar duguna, bestela, badakigu ez dugula ezer egitekorik. Esatea erraza da, egitea zaila, baina itxaropena badut eta ea lortzen dugun.

Eibarko partida horretan lehendabiziko aldietako bat izan zen frontoian norbaitek sakea egiterakoan halako txistuak entzuten zirela. Hori ere deserosoa izango zen, ezta?

Bai. Aimarrek ondoren esan zuen ongi egin ziola, txistuak ongi etorri zitzaizkiola motibatzeke, baina nik uste dut frontoian txistuak entzutea ez dela seinale ona. Gauzak ongi doazenean ez dira entzuten. Bakoitzak bere erabakiak hartzen ditu, bere izateko era eta pentsatzeko modua du eta guztiek ere ezin dugu berdin pentsatu, baina tristea da frontoian txistuak entzutea.

Epaileak igandeko finala bertan behera utzi eta Agirreren eta Albisuren kontrako finalerdia jokatu behar duzuela erabakiko balu, nola hartuko zenuke?

Ongi. Berriz ere prestakuntza aldatu beharko genuke, baina ongi. Niri pena ematen didate Agirrek eta Albisuk. Final batean egoteko borrokatzeko aukera latza zuten, eta normal ikusten dut beraiek ere aukera hori galdu nahi ez izatea. Ulertzen diet, eta nik ere esan nuen, finalera horrela pasatzea baino, nahiago nuela finalerdia jokatzeke aukera izatea, nahiz eta galtzeko arriskua izan. Ea epaileak zein erabaki hartzen duen eta zein egoera sortzen den.

Epaileak Baikoko grebalarien eskakizunak ez baditu kontuan hartzen eta igandean finala jokatzen bada, eta Julenek jokatzeke aukera badu, irabaziz gero

txapel horrek zapore ezberdina izango luke?

Azkenean txapela, txapela da. Finala jokatzen bada, guk irabaztea nahi dugu. Zalantzarik gabe. Hemendik 10 urtera jendeak ez du gogoratuko nola edo zer gertatu zen. Eta gertatzen ari den guztian guk ez dugu inolako errurik. Begira, pilotan jokatzen jarraitu ahal izateko gure enpresarekin atzera ere akordio batera iristen ari gara oraintxe bertan. Bestetik, txapela halako egoeran lortzeak meritua ere badu, ezta? Aste zailak izaten ari dira, gogorra izaten ari da, bereziki buruarendako, eta egoera honetan zentratua jokatzea eta maila ona ematea zaila da. Beraz, egoera honetan txapelak jantzik bagenitu bere meritua izanen luke.

Jokatuz gero, igandekoa pandemiaren ondotik lehendabiziko txapelketa baten final handia izango litzateke. Normalean finalak festa handia izaten dira, baina hau ezberdina izango da, 600 ikusleren muga baitago.

Bai, baina nondik gatozen, non gauden eta gauza nola dagoen, kontziente izan behar dugu. Gaur egun, ikusleekin jokatzen ari garen kirol bakarrenetako bat gara, eta hori oso garrantzitsua da, baloratu beharra dago. Etorriko dira garai hobeak. Gauden egoeran ez da gutxi zaleen aurrean jokatu ahal izatea; ea poliki berriz argia ikusten hasten garen, eta berriro aurreko final haiek jokatzeke moduan jartzen garen.

"JULENEK FINALA JOKATZEA MEREZI DU ETA FINALA JULENEK JOKATU BEHARRA DU"

"EPAILEAK FINALERDIA JOKATU BEHAR DELA ERABAKITZEN BADU, ONGI HARTUKO NUKE"

"BAIKOREN JAIALDIETAN PARTE EZ HARTZEA ERABAKI GENUEN, EZ ZAIGULAKO JUSTUA IRUDITZEN"

Final ondorengo ospakizunez ere galdetuko genuke ohiko egoera batean, baina aurten egoera ez dago ospakizun handietarako.

Hala da. Azkenean ezin da ospatu, eta pena da, zure jendearekin elkartu eta txapelketa ospatzea oso polita baita. Aurten ezin da eta bestemodu batera disfrutatu beharko dugu, beti ere finala irabazten badugu eta disfrutatzeko moduan bagara. Bueltan, bidean senitarteekin eta gertukoekin akaso nonbaiten geldituko ginatke afaltzera, baina, egia esan, ez dakit.



Joseba Ezkurdia pilotaria. ARTXIBOA

ASKOTARIKO SAKANA

Aniztasuna erein

OLAZTI

Urriak 22,
osteguna
19:00etan Kultur
Etxean

ETXARRI ARANATZ

Urriak 29,
osteguna
19:00etan Kultur
Etxean

IRURTZUN

Azaroak 6,
ostirala
19:00etan Kultur
Etxean

LAKUNTZA

Azaroak 8,
igandea
17:00etan Kultur
Etxean

Informazio gehiago:

berdintasuna@sakana-mank.eus



Laguntzaileak: Etxari Aranatz, Lakuntza, Olazti eta Irurtzango Udalak.

Pandemia garaiko Arte Azoka

Sakanako artisten erakuslehioa den erakusketa antolatzen du duela bederatzi urte Artebide elkarteak Altsasuko ferietarako. Aurten feriarik gabeko azoka izanen da. Erakusketa urriaren 31ra arte izanen da, lortia kultur guneko erakusketa aretoan

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Duela bederatzi urte Artebide elkarteak Sakanako artisten erakusketa kolektiboa egitea pentsatu zuen. Ibarreko artistek haien lanak erakusteko modua izanen zuten. Altsasuko feriak aukeratu zituzten erakusketa egiteko, eta hauek zirela baliatuz, artelanekin azoka bat egin zezaketen ere. Horrela sortu zen Altsasuko Arte Azoka. Aurtengoa berezia izanen da ez direlako Altsasuko feriak ospatuko, eta, beraz, "jende gutxiago" espero dute, gehien bat, igandean, egun handia izango zenean. "Gu bertan egongo gara, azoka modukoa egingo dugu". Helena Santano altsasuarra Ar-



Bederatzigarren urtez Arte Azoka mustu dute lortia kultur gunean.

tebide elkarteko kidea da eta urtero Arte Azokan parte hartzen du. Erakusketa aurreko ostiralean mustu zuten eta urriaren 31ra arte egonen da zabalik. Nafarroako Gobernuaren neurriak kontuan hartuz, aretoaren edukiera %30ekoa da.

Kolektibotasunak erakusketa urtero desberdina izatea eragiten du eta, urtero bezala, arte diziplina gehienak bildu dituzte lortia kultur gunean: "Aurten argazkilaritza faltan bota dugu". Bestela, margoak, arte instalazioak, eskulturak eta ikusentzunezkoak daude ikusgai Altsasuko Arte Azokan. Iaz lehenengo aldiz gai bat jarri zioten erakusketari, Altsasuko Auzia, baina aurten artista bakoitzak nahi izan duen gaia landu du. Badira azokarako propio artelanak sortzen dituztenak, baita aurretik egindako lanak erakusten dituztenak ere.

"Koronabirusak eragin dit eta nire kasuan gai horrekin zerbait sortu dut". Santanok bideo instalazio bat egin du. Zerk babesten zaitu? Lanarekin beldurraren inguruko hausnarketa egin du. Besteak beste, Manolita Thunders edo Josetxo Crespo artistek ere CO-

VID-19 birusaren inguruko "zerbait" egin dute. Hortaz, Manolita "sendotzearen eta kutsatzearen" inguruko hausnarketa bultzatu du bere artelanarekin, eta Crespok COVID-19 birusaren antza duen pieza bat sortu du, "ez dakit bere asmoa hori zen edo ez". Bestela, pandemiaren eragina ez da oso nabarmena izan erakusketan.

Artistak

Aurtengo Arte Azokan Sakanako 20 artistek parte hartu dute: Sagri Mauleon, Maite de Miguel, Maider Percas, Jokin Kale, Helena Santano, Argine Berastegi, Ana Goikoetxea, Rosa Arnanz, Patricia Paats, Manolita Thunders, Yolanda Mazkarian, Jule Kosta, Angel Antonio Agirre, Joseba Salegi, Koldo Arnanz, Rivera Lauria, Chuffi, Susana Anguiano, Adela Sanchez, Arturo Arrizabalaga, Josetxo Crespo eta Txuspo Poyo. Gainera, Carmen de Ayora, Felix Ortega, Klaus Armbruster, Alfredo Murillo eta Patxi Aldunate, Jaime Roque eta Xabier Celestino Bartzelonako, Zaragozako, Iruñeko eta Euskal Autonomi Elkarteko artista gonbidatuak izan dira ere erakusgai daude.



BAZTERRETIK

BELE BELTZAK

Bele beltzak: hasierak

Bele Beltzak egoitza Altsasun duen eta karta joko, mahai joko, miniaturak eta historia lantzen dituen elkarte gara. Gazteon artean aisialdi alternatiboa sustatzeko helburuaz jaio zen, jada urte batzuk badirela.

Denok dakigun moduan, jolasa gizakion berezko jarduerak da. Pertsonen garapenean berebiziko garrantzia du, nahiz eta gure bizitza osoan modu batean edo bestean ohiko jarduerak izaten jarraitzen duen. Gure gizartean, tradizionalki jokoa hainbat esparrutan eman da, kirolletik hasi eta herrietako sozializazioaren katalizatzaile ziren karta jokoetara. Gaur egun, jokoaren tipologia aldatu egin da, baita mota guztietako elementuen eskaintza eta eskuragarritasuna ere. Kasu honetan, gure elkarteak

"mahai jokoak" terminoak barne hartzen dituen jokoetara bideratu du bere jarduerak.

Gure ustez, joko mota hauek aisialdia probesteko aukera osasuntsu eta interesgarria izateaz gain, garapen pertsonalerako ere oso onuragarriak dira. Neurozientzia eta psikologian adituak direnen iritziz, mahai jokoek onura handiak dakarzkigu haur zein helduei. Hona hemen adibide batzuk: gure gaitasun motorrak, mentalak eta sentsorialak garatzen laguntzen dizkigute; kontzentrazioa, memoria, behaketa eta irudimena garatzen dituzte; arazoak nola konpondu, estrategiak nola landu eta erabakiak hartzen erakusten dute; sozializazioa bultzatzen dute eta lotura afektiboak indartzen dituzte; frustrazioarekiko tolerantzia-

maila handitzen dute, eta ezinezona kontrolatzen irakasten digute; ahaleginaren eta talde lanaren garrantziaz jabetzen laguntzen gaituzte; autoestimua eta konfiantza hobetzen dute; eta hiztegia, kontzeptu konplexuak eta ideien elkarketa barneratzen laguntzen dute.

Gure ibilbideak mendearen lehen hamarkadaren hasieran eman zituen lehen urratsak. Gaztetxo talde bat ginelarik, miniatura ederrez beteriko kutxatxo bat gure eskutara heldu zen. Zertxobait ikertu ondoren, hura fantasia mundu batetan giroturiko estrategia joko bat zela jakin genuen. Abentura, izaki eta munstroz beteriko mundo hark txundituta utzi gintuen eta konturatzeko gutariko asko maketa horietako gehiago erosten ari ginen. Baina, gure harriturarako, miniaturak montatu eta margotu behar genituen. Baita haiekin jolasteko arauak biltzen zituen liburu potolo bat irakurri eta ulertu ere. Denborapasa mamitsua genuen eskutartean. Ez dugu inoiz ahaztuko Zelai

kaleko Comercio Bengoetxean, Juan Cruz-ek gure alboan egurra lantzen zuelarik, elkarrekin margotzen eta jokatzeko pasatako arratsalde haietan sentitutako ilusioa.

Handik denbora gutxira, gutako batzuren lehengusu zaharren eskutik, Magic izeneko karta jokoa ere hasi ginen. Haiek emandako karteekin eta geneuzkan sos gutxiekin erositakoekin hasi ginen jolasean, jokoaren funtzionamendua ondo ezagutu gabe. Hala ere, Biltoki tabernan gu baino helduagoak ziren jokalaria zirela jakin eta, hasierako lotsa gaindituta, han agertzeko hautua egin genuen. Haien alboan eseri eta azkar batean jarri gintuzten haiekin jolasean, baita guk azkar ikasi ere!

Azpimarratzekoa da lehen garai hartan Altsasuko Udalaren aldetik jaso genuen babesa. Asteburuetan Gure Etxean jokatzeko aukera eman ziguten, jardunaldiak eta txapelketak antolatzeko baliabideak eskaini edo Tafallako Alex paregabeak ematen zizkigun maketismo

eskolak antolatu zituen. Modu horretan, pixkanaka, inguruko jokalaria eta taldeekin kontaktuan jartzea lortu genuen, gure zaletasuna indartuz.

Tamalez, handik gutxira, ikasketek eta lanak gure taldearen jarduerak eten zuten. Bizitzak beste ildo batzuetatik eraman gintuen. Baina, urte batzuk elkarrekin jokatu gabe pasa eta gero, taldea pixkanaka berriz ere biltzen hasi zen, eta bueltan gara, miniatura estrategia jolasetan murgilduta: Euskal Herriko eta Europako historian zehar emandako gertakari historikoak eta gatazkak simulatzen dituzten jolasetan aritzen gara. Horretarako garai bakoitza ikertu, ulertu eta irudikatu behar dugu, maketak eta modeloak erabilita. Elkarte indarberrituta, gure jarduerak burutzeko toki aproposa eta erakundeen babesa lortu eta ekintzak antolatzen hasteko gure egoera legala legeztatu genuen, eta Altsasuko Udalak utzitako egoitzari esker, gure jarduerak modu egokian burutzeko aukera dugu.



Zaldi Urdina antzezlanaren une bat. AINHOA RESANO

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Aingeru 17 urteko gazte bat da eta festa batean egon ondoren ihes egin du. "Lehenengo aldiz trapitxeatu du. *Zaldi Urdina* deitutako droga bat saldu du. Festa horretan gazte bat hil da, eta bel-durrez Aingeruk ihes egiten du". Ximun Fuchs Zaldi Urdina antzezlanaren zuzendaria da, eta road movie bat bezala aurkeztu du: "Familia Aingeruren bila joaten da eta Euskal Herria zeharkatzen du". Bidai horrek drogak Euskal Herrian izan duen eraginarengatik hausnarketarako aukera ematen du.

Egoera asko aldatzen ez bada, urriaren 24an, larunbata, 19:30ean, *Zaldi Urdina* antzez-lana Altsasuko Iortia kultur gunean izanen da. Axut, Arte-drama eta Dejavu kolektiboen elkarlanaren ondorioz sortutako lan bat da, eta Sakanako BERRIAlagunei eta Sakanako Mankomunitateari esker izanen da Altsasun. Nafarroako Gobernuak koronabirusaren eragina kontrolatzeko hartutako azken neurrien ondorioz, edukiera %30era jaitsi da eta dagoeneko sarrerak agortu dira.

Antzezlanaren abiapuntua droga da. "Droga Euskal Herrian gaur egun eta atzo. Atzotik gaur egunera izan duen eragina". Ara-

Hitzak askatuz

'Zaldi Urdina' antzez-lana izanen da urriaren 24an, larunbata, 19:30ean, Iortia kultur gunean. Sakanako BERRIAlagunek antolatu dute emanaldia, Sakanako Mankomunitatearen laguntzarekin

zo indibidualak kolektiboak bihurtzen direnean sortzen diren galderak planteatzen dituzte *Zaldi Urdina* obran: "Zer da familia, nor naiz ni, nor da Aingeru, zeintzuk dira gure ametsak, zer da gazte euskalduna izatea...". Galdera intimoenak sortzen direla azaldu du Fuchsek.

"Artisten funtzioa galderak sortaraztea da. Iztukutako minak eta zauriak azaleratu behar ditugu". Droga "sarraski" bat eragin du Euskal Herrian, "eta ez da inoiz epaitu. Droga nahita sortu zuten". Memoria kolektiboaren kontakizuna falta da eta antzerkiaren lana memoria "plazaratzea" dela esan du antzerkigileak. "Guk ez diogu jendeari esaten ez duela droga kontsumitu behar. Guk hausnartzen dugu ea zertarako erabili den droga Euskal Herrian, zer eta nor dagoen horren atzean, nola sortu zen industria hori eta nor aberastu da guzti horrekin".

Euskal Herriko izkutatutako historia kaleratzea da, besteak beste, *Zaldi Urdina* antzezlanaren helburua. Horretarako, gaur egunetik atzerako begirada egiten du. Lanaren oinarrian *A los pies del caballo* Justo Arriolaren liburua dago. "Zehazki esaten da droga sartua izan zela". Antzez-lana sortzeko "gertu" zuten informazioa erabili dute ere, eta auzoetara jo zuten familiei galdetzeko. "Droga sarraski bat izan da. Milaka eta milaka pertsona hil dira. Guztiak ez dira drogagatik zuzenean hil, batzuk istri-puan hil dira, gaixotasun baten ondorioz hil dira...". Zauria ez

"FAMILIA HORIEK EZ DIRA BIKTIMA GISA KONTSIDERATU"
XIMUN FUCHS

da itxi eta ez da epaitu. "Familia horiek ez dira biktima gisa kontsideratu. Desbideratze bat bezala agertzen da. Gaitz baten moduan geratu da". Kulpa bik-timen gainean gelditu dela azaldu du Fuchsek. "Ez da justizia egin, arazoa hor dago".

Gaia

Gaur egungo egoera batetik abiatzen den arren, "galderak" agertzen direnean ezinbestekoa da iraganera joatea. "Euskal Herria drogaren oasi bat da. Gaur egun ere bada, baina orain ez da heroina lehen bezala. Beste droga sintetiko batzuk daude orain". Hortaz, familiaren bidaian galderak sortuko dira eta Euskal Herriko drogaren historia kontatuko dute.

Zaldi Urdina antzez-lana duela urte bat mustu zuten. Ordutik, "antzerkiak bete dira". Jende askok ikusi du. "Ez da konpainia-

gatik edo antzezlanagatik, gaigatik da". Fuchsek azaldu duenez, familiek aukera dute drogaren gaia ateratzeko eta horri buruz hitz egiteko. "Familia askotan kide bat egoera horretan egon da, eta antzezlanaren bidez horri buruz hausnartzeko aukera dute". Hitzak askatzen dira. "Antzerkiak hitza askatzen laguntzen du; gaia kolektibizatzen". Antzezlan "oso bortitza" da. Baina ez da mingarria. "Goxotasunetik landuta dago".

Bi urtez aritu dira antzez-lana lantzen. Egoera pairatu zuten familiei galdetu zien eta horrekin hausnartzen hasi ziren. Ondoren, testua idazten zuten eta aktoreek entseatzen zuten. Unai Iturriaga eta Igor Elortza dira gidoiaren idazleak. "Joan etorriko bidai bat izan zen: idatzi, entseatu, entseatu, idatzi". Antzez-lanean 21 pertsonak lan egiten dute guztira, eta aktoreak Ander Lipus, Manex Fuchs, Urko Rekondo, Mirel Alcalá, Oier Zuñiga, Edurne Azkarate eta Olatz Beobide dira.

Egoera berezia

Koronabirusak eragindako egoera "guztiok bezala" pasatzen ari direla esan du Fuchsek. "Kultura ez da babestu. Ez da lehentasunezko gauza bat bezala hartu. Konplikakua izaten ari da". Egoera "gaizki" kudeatu dela esan du zuzendariak. "Kulturako gauzak murriztu ziren lehen. Are gehiago euskal kultura". Euskal kultura ukitzen bada, euskara ukitzen da: "Zapaltzen da. Hizkuntza bat ukitzen denean izatea bera ukitzen da". Konfinamenduan plataforma "handiek" gora egin dute eta hauek "erdaraz" dira. "Euskal kultura aldarrikatu behar dugu. Lehentasunezko sektore bat gara". Kulturak komunitatea egiten du, "eta hitzek pertsonak". Arte eszenikoak "egoera larrian" daudela esan du Fuchsek: "Beharrezkoak dira, eta horietan inbertitu behar da". Pandemia pasa ondoren "kolorezko mundu bat sortu behar dugu".

Fuchs "kasualitatez" iritsi zen antzerkira. "Nola iritsi baino zergatik jarraitzen dudana antzerkian esan beharko nuke". Bizitzak eraman dio antzerkira. "Antzerkia demokraziaren espazioa da. Herriak pentsatzeko, bizitzeko eta filosofatzeko espazioa". Antzerkiak, gainera, arte guztiak biltzen dituela azaldu du zuzendariak.

"Ferdaik transmititu nahi dudana ongi biltzen du"

Amaiak online denda zabaldu du. Natura oinarri hartuta, objektu politen eskaintza zabala du

Eneida Carreño Mundiñano ARBIZU

1 Proiektu berri bat duzu esku artean, zergatik sortu duzu Ferdai?

Aspaldi nenbilen holako proiektu propio bat sortzeko asmoarekin. Gustuko ditudan gauza berriak ikasteko aukera bikaina izateaz aparte, ilusioz betetzen nau horrelako marka berezia eta pertsonala martxan ikusteak. Nire pentsamenduan zeraman ideia hori errealitate bilakatzearen prozesua izan da politena, eta bidean aurkitu ditudan pertsona eta proiektu zoragarriak ezagutzea.

2 Zer esanahi du hitzak?

Ferdai nire herriko termino baten izena da, Arbizukoa, eta gure aitona han orduak pasatzen zituen, bere baratz eta animalia zaintzen. Oso toki berezia da familia guztiarendako, eta proiektu honekin transmititu nahi dudana oso ongi biltzen du: naturaltasuna, xumetasuna, elkartasuna eta naturarekiko maitasuna.

3 Zer eskaintzen du Ferdaik?

Ez da bakarrik produktu politak erosi daitezkeen online denda; koadernoak, libretak, poltsak, kandela usaintsuak edo irudiak aurki ditzakezu, besteak beste. Askoz gehiago da; kon-



Amaia Reparaz Extramiana, Ferdai online dendaren sortzailea. UTZITAKOA

tzientzia eta gelditasunarekin bizitzeko era bat sustatzen du, kontsumo jasagarria bermatuz eta natura zaintzen duten produktuak eskaintzeko apustua egiten duen marka da.

4 Zergatik online bakarrik?

Momentuz online bakarrik saltzen dira produktuak, baina agian aurrerago dendaren batean ere egon daitezke eskuragarri. Gaur egun, online egotea ezin-

bestekoa dela uste dut. Gainera, aurtun pandemiarekin jasaten ari garen egoera dela eta, ikusi da komertzioak egokitu beharra daukala aro berri honetara.

5 Ferdai eta naturaren arteko lotura zein da?

Ferdaiko produktuen bitartez gerturatu nahi diet natura bere kontsumitzaileei. Produktu hauek gogora ekarri diezazukete zer pertsona izan nahi duzun, planeta eta natura zaindu behar ditugula oroitaraz diezagutela, gure belaunaldiak hemen bizitzen jarrai dezaten, eta eredu izan daitezen kontsumo jasagarria posiblea bakarrik ez dela, baizik ezinbestekoa.

6 Zer produktu saltzen dituzu?

Dendan hainbat produktu kategoria aurki ditzakezu, alde batetik paper artikulak (libreta, koaderno eta egunerokoak), bestetik ehunez egindako poltsak edo totebag-ak eta, azkenik, etxerako artikulak (paretan zintzilikatzeko irudi edo lamina ilustratuak edo kandela usaintsuak). Produktu berriak ere gehitzea gustatuko litzaidake.

7 Materialez zer duzu esateko?

Produktu hauek ekoizteko erabili diren materialak kontu handiarekin aukeratu ditugu. Adibidez, koadernoetan erabilitako papera eta azalak, %100 birziklatuak izateaz aparte, hainbat prozesu sortutako hondarrek ere egindakoak dira. Poltsak egiteko berriz %100 kotoi organikoa erabiltzen da, edo kandelak egiteko sojazko argizaria.

8 Prozesuaz eta fabrikazioaz zer duzu esateko?

Materialez aparte, produktuaren fabrikazioan parte hartu duten hornitzaile eta kolaboratzaile guztiak ere mimos aukeratu ditut. Esate baterako, kandelak egiten dituen enpresa aitonen-gandik oinordetzan jaso duten negozio txikia da, edo koadernoak inprimatu diren inprenta naturarekin oso konprometitu dagoen familia negozio da. Poltsak egiten dituen tailerra, berriz, elkarlanean aritzen da Indiako emakumezko komunitate batekin.

9 Zer eskaintzen duzu web orrian? Deskribatuko duzu?


Web orrian, denda eta produktu guztien deskribapena izateaz aparte, informazio eta ideia ugari aurkituko dituzu, aipatutako bizimodu gelditu horrekin bat datozenak. Esate baterako, dohain gida labur bat duzu deskargatzeko non 6 ideia ematen ditudan planetarekin bizi kontziente eta arduratsuago bat emateko eta blog-ean ere hilero partekatuko ditut gauza berriak.

10 Sare sozialetan zaude?

Bai, Instagram (@ferdai.es) eta Facebooken kontuak dauzka Ferdaik, eta handik jarrai ditzakezue markaren nobedade eta kontu guztiak. Jendearengandik gertu egoteko eta edozein gauza argitzeko bide ezinhobe da.

11 Gonbidatu sakandarrak web orria bisitatzen.

Sakandarrak betidanik bereizi izan gara ekologiarekiko pertsona kontzientziadun eta naturaren maitaleak izateaz. Gonbidatuta zaudete proiektua gertutik ezagutzera www.ferdai.es web orrian eta pozik argituko ditut daukazuen zalantza edo galdera guztiak. Mila esker bihotzez.



Buletina prest duzu?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



**DISEINU GRAFIKOA
WEB DISEINUA
KOMUNIKAZIOA**

619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu